


BERRIGARA

7. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1996, maiatzak 31

Xiberuko kantariak

Autoberezi

FIAT *Alfa Romeo* 

1995ko Urteko kotxea

ANTIGUA AUZOA
ANTZUOLA

1996ko Urteko kotxeak



ALTZARIAK • DEKORAZIOA

UGARTE

AROSZTEGIA

San Juan auzoa (Barruti) Telefonoa eta Faxa: 76 54 91



Leiho
termoakustikoak
Horma armairuak
Ateak
Altzariak



GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiarene unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIONDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
T: 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarteak.

Zuzendaria:

Mikel Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar

Uxue Larrañaga

Maketazioa:

Mikel Azkarate

Publizitatea:

Mikel Azkarate

Harpidetzak:

Orrika Elortza

Testuen zuzenketak:

Esteban Plazaola

Margi Laskurain

Mikel Labaien

Erredakzio kontseilua:

Orrika Elortza

Miguel Angel Elkoroberezibar

Mikel Labaien

Komikiak:

Enxer Rodriguez

Orrika Ortega & Jon Alvarez

Mikel Ugaldede

Uxue Azkarate

Banaketa:

Manxangorri taldea

Tirada:

10.000 ale.

Inprimategia:

Immu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

83/50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren laguntza jaso du


Z E B E R R I D A ?

ALFONSO ALONSO

Udaltzain burua

- Istilurik egon al da aurtengo Pazkuetan?

- Nahiko ondo joan dira, ez da inolako istilurik egon. Azken urteotako jairik lasaienak izan direla esango nuke. Zerbait aipatzekotan, Simon Arrietako bizilagunak txozna inguruan zegoen zaratagatik kezatu egin direla. Goizeko 4retan argindarra automatikoki kentzeko jarri genuen aparailua forzatu egin zuten ostiralean eta hortik kexa batzuk etorri dira. Egun batzuetan, egia esan, musika *a tope* jarri dute. Bestalde, domekako entzierroan arazo batzuk izan ziren atzean geratutako txekor batekin. Plazaraino bueltan etorri zen eta gairontzeko txekorrak Arregiko txaletera sartu ziren. Asko kostata zezen plazara bideratu ahal izan ziren



berriz, eta entzierroak 8 minutu inguru iraun zuen. Eta horrez gain borroka pare bat izan dira jaietan baina ezer larririk ez.

- Kanpoko jende asko etorri da?

- Igandean batez ere, bestela jende gutxi ibili da, aparteko jendetzarik ez behintzat. Postu ambulanteak ere beste urte batzutan baino gutxiago egon dira. 60 bat guztira.

"Beste urte batzuetan baino jende gutxiago ibili da aurtengo Pazkuetan"

I T U R R I O N E T I K

Txapa Irratiak hartuko du San Martzialen kantina

Txapa Irratiak izango du kantinaren ardura ekainaren 30ean ospatuko den San Martzialgo erromerian.

Guztira, 15 talderen eskakizunak jaso ziren Udal Errejistroan eta atzo, ostegunean, eginiko zozketan Txapa Irratikoei tokatu zitzaizen San Martzial egunean taberna eramatea. Zozketan, bigarren postuan, Xamatx dantza taldea geratu zen. Aurten sekula baino eskakizun gehiago jaso dira Udaletxean. Azken urteetan BOTA Bergarako Ojetore Talde Antimitarista, EHNE, Ariznoa Gimnasia Erritmiko Taldea eta Ballet elkarteak egon dira San Martzial egunean tabernan lanean.

E S A N
D U T E

"Eduardo Muruamendiaraz gure historian ezagutzen den dantzaririk ikusgarriena da"

JOSEAN AGIRRE

Kazetaria
EGIN

"Txapelketak uztea erabaki dut"

EDUARDO MURUA
Dantzaria
EGIN

"Gipuzkoan jendeari frontoian dirua jokatzeko gustuzen zaio oraindik. Egia da Errioxan eta Nafarroan jende gehiago doala frontoira, baina Bergara Bergara da"

FERNANDO BECERRIL
Kazetaria
EL DIARIO VASCO

"Jaiak gustatzen zaizkit, baina beharbada ez naiz egokitzen, ez naiz oso gustora egoten, jokoz kanpo aurkitzen naiz"

JON LAZKANO
Eskalatzailea
EGUNKARIA

**CAZA LEGAL**

Igandea: 17:00, 19:00, 22:15.
Astelehena: 19:30
(Ikuslearen eguna).

**ASALTO AL TREN DEL DINERO**

Ostirala: 19:00, 22:30.

**MUERTE DE UN CICLISTA**

Ostirala, 7: 20:00.

Zinea

▼▼ **Andrew Sipes** zuzendariaren filme honetan **William Baldwin** eta **Cindy Crawford** dira protagonistak. *Kate McQueen* (**Crawford**) Miami abokatuak arerio asko omen dauzka. Besteak beste, Errusiako Mafiak *Kate* hil nahi du. *Max Kirkpatrick* (**Baldwin**) polizia izango da bere babes bakarra eta biek ihesari ekingo diote. *Kate* eta *Max*en arteko erlazioa bidaia horretan piztu egingo da.

▼▼ *John* (**Wesley Snipes**) eta *Charlie* (**Woody Harrelson**) New Yorkeko metroan lan egiten duten bi polizia dira. Euren eginkizunen artean, diruz beteta doan tren zaintzeko agindua daukate. Tren hori inoiz ez dute lapurtzerik lortu eta *John* eta *Charlie* askotan berba egin dute horri buruz. *Charlie* hori egiten ausartu den arte...

▼▼ **Juan Antonio Bardem** zuzendariak (*Comicos, Calle Mayor*) 1955ean errodatutako filme honek kritikaren saria jaso zuen Canneseko Jaialdian. Bardemek orduko gizartea kritikatu nahi izan zuen, Francoren garaiko zentsura gaindituz. **Alberto Closas** eta **Lucia Bose** aktoreak aurkitu ditzakegu erreparto buruan.

Deiak

▼ **Alkoholiko** Anonimoen Elkartek hitzaldi irekia antolatu du datorren ostiralean, ekainak 7, 19:30etan Bergarako Kultur Etxean.

▼ **Udal Musika Bandak** kontzertua emango du igandean 12:30etan Hernaniko kioskoan.

▼ **Bedelkarrek** eta Beartek herriko dendetako eskaparateetan antolatutako arte erakusketaren zozketan Yoar zapata dendak emandako 5.867 zenbakia izan da saritua. Ordezko zenbakia Poligonoko Primi arraindegiak banatutako 2.627 zenbakia da.

▼ **Aita Meni** ospitaleak antolatutako arte erakusketan Juan Balentziagaren margo eta eskulturak, eta Arantzazu Aranzabalen zeramika lanak ikus daitezke San Juanak bitartean.

Ogia

▼ **Igandea 2:** Konde.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 31:** Mozos/Ruiz.
- ▼ **Larunbata 1:** Camacho.
- ▼ **Igandea 2:** Camacho.
- ▼ **Astelehena 3:** Puy.
- ▼ **Asteartea 4:** Guallar.
- ▼ **Asteazkena 5:** Estella.
- ▼ **Osteguna 6:** Mozos.

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09


Xiberuko kantariak

Zuberoako 8 abeslari zapatuan Novedadesen

Jardun Elkartek antolatuta, bihar larunbata, ekainak 1, Xiberuko kantarien jaialdia ospatuko da Novedades aretoan gaueko 10:30etatik aurrera. Bertan, Niko eta Dominika Etxart, Robert Larrandaburu, Jean-Mixel Bedaxagar, Mikel Urbeltz, Maddi Oihenart, Pier-Pol Berzaitz eta Marie Helene Estekahandi kantariak hartuko dute parte. Eba Alberdi Jarduneko dinamizatzaileak aipatzen duen moduan, "Jardunen belburuetako bat euskal kultura bultzatzea litzateke eta Zuberoako kultura, zenbaitentzat behintzat, nabiko ezezaguna dela uste dugu. Horregatik kontzertu hau antolatzeko ideia sortu zen, batez ere bertako kantariak ezagutzera emateko asmoz eta, bide batez, jendeak Zuberoan zer egiten den ezagutzeko aukera izan dezan".

Kontzertuak lau zati

Biharko kontzertuak lau zati izango ditu. Alde batetik, Niko eta Dominika Etxart (Nikoren aita) Robert Larrandabururekin "a capella" arituko dira, ins-



Niko Etxart, zapatuan izango den xiberuko kantarietako bat.

trumentorik gabe. Jean-Mixel Bedaxagar kantaria biolina eta ttuntuna jotzen duen Mikel Urbeltzkin aterako da eskenatokia eta Maddi Oihenartek, berriz, bakarkako emanaldia eskeiniko du.

Azkenik, Pier-Pol Berzaitzek Marie Helene Estekahandi violoncellistaren laguntzaz abestuko du. Niko Etxart izango dugu biharko emanaldiko protagonistetako bat. Iparraldeko kantariak *Gili-gili-*

kutzen baut izenburuko disko konpaktoa kaleratuko du datozen egunotan. *Nabasteka* (1979), *Has dantzan* (1980), *Tumatxa* (1983) eta *Baikor* (1990) izenburuko lanen ostean Etxartek plazaratzen duen bosgarren lana dugu honako hau. Joan zen maiatzaren 15ean azken diskoaren zati batzuk aurkeztu zituen Nikok Iparraldeko Alzuruko herrian eta bihar, berriz, bergararrok bere lanaren berri jasotzeko aukera izango dugu. Nikok adierazi duenez, "disko berri honetan rock eta blues aireak euskararekin urtu egin ditut".

Sarrerak 800 eta 1.000 pezetan

Sarrerak 1.000 pezetan jarriko dira salgai Novedadeseko takilan eta aurrez 800 pezetan erosi ahal izango dira Etxepare liburudendan, Kortazar tabernan edo Jardun Elkartearen, Masterreka 13an.

Xiberuko kantariak hegoaldean eskaintzen duten bigarren emanaldia izango da Jardunek zapaturako antolatutakoa

LARRAÑAGA
eta **ZUBIA**
Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Txunba, txunba!!

No pares, sigue, sigue... Txunba, txunba!! Quiero verte, quiero verte!...

Jaietan herrian geratu garenok eta bakailau musika gustatzen ez zaigunok nazkatuta bukatu dugu erabat. Jendeak eskatzen duena dela esaten dute tabernariak. Bai zera!! Ez dut ukatuko gero eta gehiago direla bakailau jarraitzaileak, baina nazkatu samar garenak ere asko gara. Ez gaude bakailau musikaren eta hortera musikaren kontra, bere neurrian jartzen baldin bada, baina egunero-egunero abesti eta disko berdinak jarzea gehiegitxo da.

Taberna batzuk izan ezik, eta hori eskertzekoa da, beste guztiak, gusto txarreko moda hortera horren ildotik jo dute. Diskoteka kutreak bailira, argitxoak ere jarri dituzte batzuetan. Ez dago nortasunik!! Rock Radikalaren modarekin aspertuta bukatu genuen bezala, beste honekin ere nekatuta gaude.

Une hau aprobetxatuz esan nahi diet tabernariei, jaietako irabazien zati bat hartu eta disko berriak erostera joan daitezela ea aire fresko eta berriekin sorprenditzen gaituzten. Jaiak datozen bakoitzean prezioak igotzeko hainbeste kezkatu beharrean, diskoteka berritzeko ahaleginak ere egin beharko lituzkete.

MIKEL AGIRRE

Jaietan euskaraz

Euskara gora eta euskara behera, indartu egin behar dela, galtzeko zorian dagoela... askotan entzun izan dugu. Instituzioak ere euskararen egoeraz jabeturik hainbat gauza egiten ari dira gure hizkuntzaren normalizaziorako.

Halere egiten diren gauza guztiak gutxi dira horrenbeste urtetan bazterturik izan den hizkuntzaren normalizaziorako. Pasatu dira Pazkuak eta euskararen presentzia gero eta nabarmenagoa da bai kalean eta bai instituzioek bultzatzen dituzten ekintzetan. Halere badago gauza bat komentatu nahi nukeena euskara eta jaien inguruan. Asteartean izan zen herri trenaren ibilbidean lotasagarria iruditu zitzaidan mikrofonoa zeraman pertsonak erdara hutsean berba egitea. "Vamos niños, que por ahora ya hemos terminado" eta horrelakoak entzutea sekulako belarriko mina eman zidan.

Gainera kontutan izanda horrelako ekintzak Udalak antolatzen dituela, datoren urterako komenigarria izango litzateke horrelako jarduera bat euskaraz dakiene batekin egitea. Kontutan izanda Bergarako haur gehienek, zorionez, euskara badakitela, derrigorrezkoa izan beharko litzateke euskaraz egitea horrelako ekintzak gure hizkuntzaren normalizaziorako beste pauso bat emanez; eta batez ere, hurrekin gabiltzanean eurak

baitira etorkizuna eta etorkizunean euskaraz bizitzea euren esku baitago. Agur bero bat, eta datozen urteetarako eskakizuna kontutan izango duzuelakoan, "por ahora ya he terminado".

NAROA G.

San Martin. Haurren garraioa

Ez gara geure harriduratik irtetzen!

Aurten, beste ekintza eta proiektuen artean, garraio zerbitzua hobetzeko asmoa genuen, eta horrela egin dugu.


Azken hiru hilabete honetatik aurrera gure seme-alabak eta gure ikasleek garraio zerbitzu bat dute, zaintzaile batekin zainduta, goizean eguerdian eta arratsaldetan etxetik-eskolako bidea egiteko. Oso pozik gaude, azkenean lortu dugu gure aspaldiko helburu bat: "eskola autobus-geitokian hastea".

Hortarako gure beharrak, ideak eta dirua erabli ditugu inorti ezer kendu gabe.

Zerbitzuak gehitzea eta hobetzea gure eskubidea eta betebeharra dela pentsatzen dugu eta bide horretatik jarraitzeko asmoa daukagu.

SAN MARTIN IKASTETXEKO GURASOAK ETA IRAKASLEAK

Tiira biraka



**Kontzertua
Santa Marinaran**

Elgoibarko Itxaropena abesbatzak kontzertua eskeiniko du bihar larunbata, gaueko 9etan Santa Marinaran. Nerea Ugarteren zuzendaritzapean, Elgoibarko abesbatzak Bach, Ansorena, Bastida, Mitxelena edo Lauroren piezak abestuko ditu.

Mendi ibilaldia

Haran Bizia kolektiboak antolatuta, igandean mendi ibilaldia izango da Maltzaga-Urbina autopistak San Martzial inguruan izango duen eragina ikusteko. Irteera goizeko 9:30etan irteno da Frontoitika eta bokadiloa eta zatoa eramatea eskatzen da.



Udaleko, OHOkoko ikastetxeetako eta Udal Euskaltegiko ordezkariak osteguneko aurkezpen ekitaldian.

Euskara sentsibilizazio kanpaina guraso eta gurasogaiei zuzendua

Ostegunean Jaurlaritzako Hezkuntza sailak bultzatutako "Ahoz aho, belaunez belaun" izenburuko kanpaina aurkeztu zen Udaletxean. Bertan Koldo Pereira euskara zinegotzia, San Martin, Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastetxeetako ordezkariak, Maria Dolores Lete Udal Euskaltegiko zuzendaria eta Estepan Plazaola euskara teknikaria izan ziren. Sentsibilizazio kanpaina honen bidez guraso eta gurasogaien euskararen aldeko jarrerak sendotu nahi dira. Seme-alabak euskaraz egiteko orduan eurak duten erantzunkizunaz kon-

turarazi nahi zaie, familiak seme-alabek euskararen aldeko jarrera izatea lor dezakeelako.

Kanpaina, esan bezala, seme-alaba txikiak edo gaztetxoak dituztenei eta seme-alabak izateko adinean daudenei zuzendurik dago. Kanpainaren oinarrietako bat erakusketa bat izango da ikastetxeetan eta Udaletxeko Areto Nagusian izango dena. Udaletxean ekainaren 3tik 9ra bitartean egongo da ikusgai. Bertan, besteak beste, panel interaktiboak izango dira eta galdera joku baten bitartez ikusleek opariak jasotzeko aukera izango

dute. Erakusketa aste barruan 6etatik 8etara egongo da zabalik eta larunbat eta igandean, 12etatik ordu bietara eta 6etatik 8etara. Horrez gain, gurasoak euskaraz ikastera animatu daitezten, eurentzat euskarazko klase bereziak izango dira. Klaseon edukia eta ordutegia izena ematen dutenekin batera zehaztuko dira. Izena eman edo argibideak jasotzeko interesa duten guztiek erakusketa-lekue-tara edo ikastetxetara jo dezakete. Era berean, herriko ikasleek hainbat hitzaldiak eta ipuin kontaketa saio izango dituzte datozen egunetan.

HILDAKOAK

Pedro Perez Diez

Maiatzak 16, 66 urte

Emilia Barrutia Laskurain

Maiatzak 19, 80 urte

Alejandro Juaristi Gantxegi

Maiatzak 25, 83 urte

Andres Mujika Arregi

Maiatzak 28, 56 urte

JAIOTAKOAK

Paul Valgañon Urrutia

Maiatzak 6

Izaro Fernandez Iriondo

Maiatzak 17

Jabier Eginu Ugarte

Maiatzak 18

Iñaki Galarraga Pardina

Maiatzak 19

Oier Ugalde Gonzalez

Maiatzak 25



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK

- APAINKETARAKO PINTURAK
- ERROTULOAK

Aranerreaka, 32 behea BERGARA. Telefonoa eta faxa: 76 11 40

Igerilekuak eguzkia hartzeko zabalik

Agorrosingo igerilekuak eguzkia hartzeko zabalduko dira datorren astean. Kanpoko igerilekuak astelehentik ostiralera egongo dira zabalik, goizeko 10etatik arratsaldeko 6 terdiak arte.

Nesken futbolin txapelketa


Bihar larunbata, ekainak 1, Nesken 1. go Futbolin Txapelketa jokatu da 4retatik aurrera Oilagorra tabernan. Izen-ematea (500 pezeta bikoteko) Oilagorra, Pol-Pol, Etxagi, Aldoka Maldoka eta Arrano tabernetan egin daiteke.

Odol ateraldia ekainaren 12an

Bergarako Odol Emaleen Elkarteak jakin arazi duenez, datorren astean ez da odol ateraldirik izango. Hurrengo odol ateraldia ekainaren 12an 18:30etan izango da. Odol emaleek bertara joateko deia zabaldu dute.

Helduen Heziketa Iraunkorreko ikastaroak

Helduen Heziketa Iraunkorreko zentruak (HHI-EPA) ekainaren 10etik 21era bitartean eskulanak, masajea eta yoga, mekanografia, zeramika edo enkuadernazio ikastaroak antolatu ditu. Interesatuek ekainaren 5a baino lehen egin beharko dute izen-ematea, Barrenkale 33ko lokalean edo 76 44 52 telefonora deituz. Era berean, 1996/97 ikasterterako matrikula ekainean egin ahal izango da. Interesatuek ikastetxean bertan jaso ditzakete argibideak.



Besteak beste, Zerrajerak historian zehar ezagutu duen garapen ekonomikoa ikertuko da.

Eli Arrieta bergararrak eskuratu du Zerrajerako beka

Zerrajeraren historia jasotzeko lanean jardungo du

Eli Arrieta Ingeles Filologian lizentziatutako bergararrak eskuratu du Eusko Ikaskuntzak eta Bergarako Udalak kaleratutako "Union Zerrajera Ahozko Iturburuak" izenburuko beka. Beka honen helburu nagusia Zerrajerako historia ezagutzeari izango da eta horretarako Zerrajerarekin zerikusia izan dutenen hainbat pertsonen ahozko testimoioak jasoko dira. Guztira, 20 bat elkarrizketa egin beharko ditu Eli Arrietak. Arantzazu Oregi Udal Artxibategiko arduradunaren hitzetan, "Bergara eta Zerrajerako historia ondo prestatu beharko da lehenbizi eta ondoren, elkarrizketen bitartez, Zerrajerak historian zehar izan duen ibilbidea aztertu: herriko bizitzan izan duen eragi-

na, lan egiteko metodoen bilakera, Zerrajeraren garapen ekonomikoa eta beste hainbat aspektu ezagutu nahi dira. Lan oso interesgarria izango dela uste dut eta gainera interesatuek kontsultak egiteko aukera izango dute lana amaitutakoan".

Elkarrizketatu beharrezko pertsonak aukeratu ondoren, elkarrizketak grabatu eta idatzi egingo dira. Egindako lanaren kopia bat besteak Donostiako Historia Garaikidearen Zentroan gordeko dira. Arantzazu Oregik esan digunez, "garai bateko datu oso aberatsak bilduko dira eta beti ere ikerlarientzat inportantzia haundikoa da hori".

Pepelu

Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA



**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

Presoak Euskal Herriratzea eskatu dute presoen senideek

"Presoen oinarrizko eskubideak ez dira betetzen"

Presoak Euskal Herrira ekarri eta dispertsioaren amaiera aldarrikatzeko Senideak presoen elkarteak prentsaurreko bat eskeini zuen astelehen eguerdian San Martin Plazan. Herriko presoen familiarrez gain, presoen koadriletako lagunak bildu ziren Udaletxe aurrean.

Senideakeko kideek dispertsioa legearen kontrakoa dela salatu eta preso bergararren egoera larria dela adierazi zuten. Senideakeko kide baten hitzetan, *"dispertsioak preso-oinarrizko eskubideak ez dira betetzen. Jipoiak jasan behar dituzte, zeldak egoera txarrean daude, ezin dute kirolrik egin eta asistentzia mediko egokirik ere ez dute gure lagunek"*.

Era berean, Senideakekoek presoak bisitatzeko asteburuero egin behar izaten dituzten bidaiak gogoratu zituzten. Preso bergararren senide edo lagunek 19.500 kilometro egiten dituzte 40 minutuko bisita bat egiteko. Hori dela eta, Senideakek hainbat politikok presoak gerturatzearen alde azalduko jarraera salatu zuen; *"ez dugu gure senideak gerturatzea nahi, ez dugulako nahi Puerto de Santa Mariatik Sevillara eramatea. Gure helburua, eta legeak horrela dio, presoak Euskal Herrira ekartzea da"*.

Azkenik, Iñaki Arenaza presoaren koadrilako lagun batek ere presoak Euskal Herrira ekartzea aldarrikatu zuen, *"Iñaki gure laguna gure artean izateko"*.



Presoen egoera salatu zuten presoen senide eta lagunek Pazku astelehenean.

Plenoa astelehenean

Astelehenean 19:30etatik aurrera ez-ohizko batzarra ospatuko da Udaletxeko Aretoan. Bergarako Udala Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatetan (EUDIMA) sartu, Estatutoak onartu eta elkarte honetan ordezkariak izendatzeko HBk eta Eak aurkeztutako mozioa aztertuko da bertan.

Kirol argazkien lehiaketa

Udaleko Kirol Zerbitzuak kirol argazkien seigarren edizioa deituko du. Lanak entregatzeko epea ekainaren 19an bukatuko da eta sari banaketa, berriz, uztailaren 6an egingo da. Argibideak Kirol Zerbitzuan edo 77 91 67 telefonoan.

Udalak Frontoiko ardura berreskuratu

Pasa den maiatzaren 20an izandako Plenoan EAJ, EA eta PSE-EE alderdiek, Udala Pelotalekuaren ardura berreskuratzeko, Eskutaldeari 25 milioi pezeta ordaintzea onartu zuten. HBko zinegotziak abstenitu egin ziren botazioan. Badirudi Udala akordio batera iritsi dela Asegarce enpresarekin Bergaran lehen mailako pelota partiduak antolatzeko baina kontratu hori ez da urte amaierara arte sinatuko. Bien bitartean hainbat pelota jaialdi antolatuko ditu Asegarcek Bergarako Frontoian.

Jubilatuentzat egonaldiak Donostian

Diputazioak 65 urtetik gorakoentzat Donostian hiru eguneko egonaldiak antolatu ditu. Argibideak 900 43 43 43 telefonoan jaso daitezke.

KONDE

PANADEROKUA
 Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

ONENA
TINTATEGIA
 Barrenkale, 29 BERGARA


DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
 Arrasate / Bergara / Elgoibar
 T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

Bestetan baino jende gutxiago, baina giro polita jaietan



The Lion King oso gustora ikusi eta entzun zuen jendeak.



Orkestra Sinfonikoak 10 urte bete ditu. Zorionak!!



Herriko artisten harrobiak fruitu ederrak emango ditu.



Plazan eta soziedadean bai, baina etxean zer?



Jaietako lehen eguna. Martitzenean ez ziren hain pozik egongo.




Torero gazteak, baina ausartak... Bost belarri moztu zituzten.

Tabernariak, udaltzainak, herritar arruntak zein kazetariak, guztiak bat etorri dira, aurtengo jaietan bestetan baino jende gutxiago ibili dela aitortzerakoan. Inguruko herrietan antolatu diren ekitaldiak, ikasleek azterketak gain gainean dituztela edota Mediterraneoko aldera eguzki bila joan diren herritarrak (14 autobus irten omen dira), izango dute horren errua. Kontuak-kontu bertan geratu direnak ahalik eta ondoen pasatzeko ahaleginak egin dituzte, eguraldiak lagundu du, eta jai-giroa bestetan bezain polita izan dela esan daiteke. Normala den moduan asteburuan ibili da jenderik gehien kalean zehar. **Joseba Etxeberria** Athletic-eko jokalaria ere Bergaran ikusi dugu...

Bitorianatxoren jeitsierarekin eman zitzaien hasiera jaiari eta ostiral gauean **Orkesta Sinfonikoaren X. urteurrena** ospatzeko antolatutako jaialdian Udala Pelotalekua txiki geratu zen. Orkesta Sinfonikoak, Aritzeta abesbatzak, Bergarako Orfeoiak eta Orfeoi Gazteak emanaldi bikaina burutu zuten eta jendea oso gustora utzi zuten, batez ere The Lion King-ekin. Zapatu goizean **Sukaldaritza** eta **marrazki** eta **margo lehiaketak** izan ziren. 10 elkarte gastronomikoko ordezkari hartu zuten parte eta Uberako **Jaolatza** elkarteko **Jose Manuel Markiegi** eta **Rafael Olañeta** izan ziren bakailaorik onena prestatu zutenak. Bigarren postuan **Pertxako Miguel Lazkano** eta **Jose Mari Perez** sailkatu ziren eta hirugarren, **Pikupeko Jose Mari Larrañaga** eta **Luis Mari Beistegi**.

Marrazki eta margo lehiaketan haur mordo batek hartu zuten parte eta maila polita egon zela esan behar da. Igandeko **Euskadiko Dantza Suelto Txapelketan** bergararrak protagonista izan genituen. Lehen saria **Xabier Azurmendi** zegamarrak eta **Yanire Urbieta** bergararrak osatutako bikoteak irabazi zuten. Bigarren, **Xabier Egidazu** eta **Irantzu Lizarralde** bergararrak sailkatu ziren eta hirugarren **Ekaitz** eta **Maidier Larrañaga** azkoitiarrak. 26 bikotek hartu zuten parte eta jantzi dotoreenaren saria Hernaniko **Aitzol Santacruz** eta **Itxaso Casamanesek** eraman zuten; bergarar bikoterik onenarena, berriz, Xabier Egidazu eta Irantzu Lizarralde. Igandeko **txekorketak** eta jaietan zehar antolatu diren **sokamuturrak** eta **herri festak** jende asko erakarri dute zeren plazara. **Paulitak** hiru belarri moztu zituen eta **Millanek** bi. Hiltzerako orduan ez ziren finegi ibili eta horrek ilundu zuen zertxobait toreroen lana.

Pelota partiduak eta **rock kontzertuak** ere jaietako ekitaldirik nabarmenetakoak izan ohi dira. Pelota jaialdi interesgarriak antolatu badira ere, eta asteartean izan ezik, ez da jende asko ibili frontoian. Rock kontzertuak, berriz, gazte askok jarraitu dituzte. Astearteko **Herri Bazkaixan** eta onorengo **karaokean** giro jatorra eta umore ona izan ziren nagusi. Batzuei aurpegian antzematen zitzairen jaietako azken eguna zela, baina indarrak atera zituzten eta ordu txikietan oraindik kaleak gora eta behera zebiltzan... Jaiak amaitu dira eta juergari, lanak hartu dio testigua. Batzuk biharamona ohean pasatzeko aukera izan dute, asteazkenean jai hartu zutelako, baina jo eta ke aritu direnak kale garbitzaileak izan dira.



Barraketako zezenek makina bat susto eman diete gaztetxoiei.



Eguzkiaren berotasunari nola aurre egin jakin izan dute askok.



Ahotsak huts egin arren, karaokean kantatzeko beti prest.

Datu bilketa

Errolda aurrerantzean urtero eguneratuko da

Hamaika lagun etxe etxe ibili dira herritarren udal errolda, eta biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika egiten. Bi orritan datu pertsonalak, ikasketak, lanbidea, hizkuntza... horien inguruko datuak jaso dituzte. Datuok sekretupean gordeko dira: lehenengo orria, udal erroldari dagokiona, udalarentzat izango da; bigarrena, berriz, biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika, Eusko Jaurlaritzarentzat.

5.500 bat etxetan jo dute atea, maiatzaren 3tik gaur arte, errolda egiteaz arduratu diren 11 bergarrek. Horiez gain, beste bi ere aritu dira: koordinatzaile bat, eta EUSTATEko ordezkari bat; honek datuak ordenadorean sartu eta zalan-zak argitzen lagundu die. Egunean, batz beste, 30 etxetako datuak jaso behar zituzten. Egun batzuetan ez dute suerte handirik izan eta gutxiago egin dute, beste batzuetan uste baino gehiago. "Egunaren eta jendearen araberaren izan da. Astelehene-

tan eta eguakitzetan, esaterako, udaletxera jende gutxiago etorri da".

Bi orri betetzeko

Bi orritako inkesta izan da. Lehenengoa udalarentzako datuak batzeko da. Bertan izen-abizenak, jaioteguna, NAN, bi-

zilekua eta titulazioak beste dira. Eusko Jaurlaritzarentzat izango den orrian, besteak beste, honako hauen erantzuna eman da: ahaidetasunezko egoera, lana, egoera zibila, euskara eta hizkuntza, eta etxebizitzaren ezaugarriak. Koordinatzaileak esan digunez, datuak sekretu-

ak dira eta ez da erabilera txarrik egingo: "erroldari dagozkionak udalarentzat izango dira. Bigarren orrikoak ez dira datu pertsonal bezala azalduko, kopuruak ateratzeko direnez estatistikak eta prebisioko egiteko bideratuko dira: Bergararen zenbat etxe edo euskal-



11 erroldagileak herriko 500 bat etxetan izan dira.

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.

Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

IZADI PILI GISASOLA

Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

dun dauden, eta era horretako estatistikak ateratzeko. Bestetik, prebisiok egiteko ere izango dira. Esate baterako, orain ume gutxi dagoela ikusten bada, hemendik 10 urtera ez da eskola berrikerik eraikiko, beharrik ez delako izango. Gero eta biztanle gutxiago badago etxe berriak eraikitzeak ere ez du zentzurik... horrelako prebisiok egiteko da. Eta jendea lasai egiteko moduan dago, datuek sekretu estatistikoa dute eta".



"Liburu bat idazteko lain anekdota izan dugu".

Oraindik egin daiteke

Errola 11 lagunen artean egiteko herria 3 distritotan eta horiek 13 sekzioetan banatu da; sekzio bakoitzean kale batzuk sartzen ziren. Hartara, errola egile bakoitzak sekzio bat egin du eta beste bi sekzioak batean sartu dituzte. Kaleko errolak etxe etxe egin dira. Gertatu izan zaie etxe batera joan eta inor ez egotea. Horrelakoetan ohartxo bat laga diete atean, errola betetzera udaletxera joateko eskatuz. Udaletxeko lehenengo pisuan, goizeko 9etatik arratsaldeko 7etara, beti egoten zen errola egiteko norbait eta hark hartzen zituen datuok -norbait inkesta egiteke geratu bada, oraindik bada egiteko aukera-

Erroldagileek pertsona baten datuak pare bat mi-

nutuan jaso dituzte, baina denborarena etxe bakoitzeko pertsona kopuruaren arabera izan da: zenbat eta jende gehiago bizi, orduan eta denbora gehiago.

Dena den, zenbait lagunekin askoz denbora gehiago egin dute. *"Zaharrek edo bakarrik bizi direnek berba egiteko gogoia edo beharra zuten, eta horiekin denbora gehiago egin dugu".*

Jendeak mesfidantza

Datuak berrituko badira, herritar guztiek bete behar dituzte inkestak. Orain arte bost urtean behin berritzen zen, baina hemendik aurrera urtero berritzeko asmoa dago. Herritar guztien egin beharra da inkestak erantzutea; hala eta guztiz ere, askok erreparoa izan dute eta nahiago izan dute ez erantzutea. *"Askotan*

jendeak maletatxoarekin ikusitakoan saltzaileak garela pentsatu du; zerbait kobratzera gindoa-zela ere bai; izan dira benetako datuak ematen ausartu ez direnak ere: orain hurrengoan gizon batek esan zidan etxearen m2 gutxiago jartzeko, bestela zergetan gehiago ordaindu beharko zutela eta. Beste batzuek ordea, etxeok bagina bezala hartu gaituzte".

"Bi orri bete dira: lehenengoan Udalarentzako datuak jaso dira. Bestean, Jaurlaritzarentzat; datuak sekretuak dira"

ITXASMENDI
ERREKADISTA
Barrenkale, 36
BERGARA
☎ 76 50 64 / 76 13 61
EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,
ARETXABAETA, ESKORIATZA eta OÑATIRA.

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.
Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA



"Lanik haundiena jendearen ezkontza data jakiteak eman digu".


Denetarik izan da, eta oso ondo hartu dituztenak ere izan dira: "Lehengoa, esaterako, hiru t'ardiak ziren, eta bazkaltzeke nengoen. Etxe bateko lehenengo pisura joan nintzen, eta bidali egin ninduten. Bigarren pisura joan nintzen etxeokoak kafea eskaini zidan. Bazkaltzeke nengola esan nionean, txipiroiak eskaini zizkidan. Batzuk danbateko bat ematen digute, beste batzuk sartu eragin eta jartzeko gonbitea egin, merienda eskaini...".

Ez gara zerga biltzaile

Erroldagileek liburu bat idazteko lain anekdota izan dituzte. "Nik izen-

burua ere pentsatuta dut: *Las tribulaciones de un agente censal. Izan ere, zer ez zait gertatu! Lehengoa, baten etxera joan nintzen, eta atearen heldulekutik prakak zin-*

tzilikatuta zituen, inork ez molestatzeko adierazi nahian. Edo, beste emakume batek ezkontuta zegoela esan arren, alarguna zela jartzeko eskatu zidan...".



Norbait inkesta betetzeke geratu bada, Udaltzera joan eta egiteko aukera du.

Erroldagileek etxe guztietara joan behar izan dute, eta zenbaitetan ezustekoak izan dituzte. "Atari batera joan ginen eta, 1. eta 3. pisuak bazeuden, baina bigarrena ez zen inondik azaltzen. Ez dakigu, bigarren barrik, 3. pisua nola dagoen zutik...". Hala ere, lanik handiena jendearen ezkontza data jakiteak eman die. "Jendeak eraztunean begiratu behar izan du, ez zen akordatzen".

Deigarria egin zaien beste datu bat gaztelertutako Europako zenbat abizen dagoen izan da. "Cordobako herri batetik etorritako jende asko bizi da Bergaran. Herri hori, Carlos III.aren garaian, Europako jendearekin osatu zuten. Europar boriek abizen europarrak zituzten, baina denborekin gaztelertatu egin dituzte. Rot, Ot, Heis... asko dago Bergaran".

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

GURIDI

altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

ileapaindegia

eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

Elikadura

Burdina

- Zein da burdinaren funtzioa?

- Burdina, elikadurari dagokionez, mikromineralik garrantzitsuenetakoa dugu. Gizakumeok, 70 Kilogramo bakoitzeko, 3,5 edo 4,5 gramo burdin dugu gorputzean eta emakumeek, berriz, 2-3 gramo tartean dituzte. Gure gorputzean duen funtzioa oxigenatzearena da batik bat, hau da, oxigenoa garraiatzea.

- Burdina nahikoa izan ezean, zer gerta daiteke?

- Burdin gabeziak benetan gaixotasun garrantzitsuak ekar ditzake, eza-gunena anemia ferropenikoa deritzona dugu. Kontu haundia eduki behar dute emakumeek (hilekoan, odola galtzean, burdin ugari galtzen baitute), kirolariak, ultzeradunek, eta jende zaharrak. Burdinaren kontrola odol analisi arruntekin egiten da. Orokorrean, burdin gabezia ez bada oso gogorra, dieta aldatzea nahikoa izaten da. Hau da, burdin ugari duten elikagaiak jatea komeni da eta burdina gabezia arrisku-

tsua bada, berriz, medikuak errezetatutako burdina suplementoak izaten dira irtenbide orokorrena.

- Zeintzuk dira, bada, burdina duten elikagaiak?

- Burdina "jateko" orduan oso garrantzizkoa den bereizketa bat egin behar dugu aurretik, bi burdina mota daude eta: *hemo* motako burdina (animalia jatorrikoa) eta



BITTOR RODRIGUEZ
(Dietista)

ez *hemo* burdina (landare jatorrikoa). Hemo burdina da aprobetxagarriena, animalia jatorriko elikagaiak duten hemo burdinaren %20 eskuratzen dugu jaterakoan; landareak jaterakoan, berriz, ez hemo burdina irensten dugu, eta hau %3-8 tartean


aprobetxatzen da bakarrik. Horregatik askoz hobea da gibel xerra batek eskaintzen digun burdina dilista edo lenteja plater batek eskaintzen digunaren aurrean. Hala ere, honek ez du esan nahi landare jatorriko elikagaiak ez direla nutritiboak (haragiak ez dituen beste propietate asko eta asko dauzka), baizik eta burdina kontuan haragia dela erregaia.

Burdina ugari duten elikagaiak orokorrean animalia jatorrikoak dira, odola eta odolkiak, gibela, haragia... gehienbat kolore gorria dutenak). Landare jatorrizkoei dagokienez, berriz, dilistak, babarrunak, zerealak, fruitu lehorrak... Bestalde, burdina arrainetan, arraultzetan eta esnetan ere kopuru aipagarrian ageri da.

- Ba al daukazu beste gomendiorik burdina hartzerako orduan?

- Burdinaren aprobetxamendua hobetu dezakegu jaten dugunean; burdinean aberats diren elikagaiak jaten ditugunean komenigarria da, adibidez, entsaladarekin laguntzea (ozpinak burdina asimilatzen laguntzen baitu) edo postre bezala C bitamina duten elikagaiak jatea (laranjak, marrubiak, kiwiak...). Era berean, esneak edo esnekiek ere burdina aprobetxatzen laguntzen dute.

"Burdinak gure gorputzean duen funtzioa oxigenatzearena da batez ere"



Burdina duten elikagaiak animalia eta landare jatorrikoak dira.

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behe

☎ 76 21 65 / 76 24 45

Gallastegi

Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 76 10 85


REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan


Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

Bergaran 4.000 xake partida jokatu nahi dira larunbatean. Zuk xakean jokatzen badakizu?



Enaitz Agirre

Ez. Dametaran jokatzen dut baina xakea ez dut gehiegi kontrolatzen. Ez zait gustatzen gainera, aspergarria da.



Julen Egaña

Ez, ez dakit jokatzen. Ez naiz inoiz saiatu jolasten, baina ez daukat interes gehiegirik ikasteko.



Ainhoa Basauri

Ez, inoiz ez dut jolastu. Nahiago dut dametan jolastea. Xakeko oinarriak ez ditut ezagutzen eta ikasten ere ez naiz inoiz jarri.




Esther Balanzategi

Ez, ez dakit. Sekula ez didate erakutsi eta ni ere ez naiz saiatu... Dametan, berriz, asko gustatzen zait jolastea.



Maria Pilar Gonzalez

Ez, puntxoan eta horrelako jokoetan askotan jolasten dut baina xakean inoiz ez dut jolastu. Ez dakit nola jolasten den.



Ramon Galdos

Badakit piskat, mugimendu batzuk ezagutzen ditut baina asko ez naiz ibiltzen. Semea, ordea, ibiltzen da... Niretako, kirola baino, joku bat da xakea.



ARRASTRO
Birziklaia



Erabilitako objetuen berreskurapena:
altzariak, saneamendua, etxerako tresneria, aintzinakoak.

Altzari bilketa • Zurgintza lanak • Beira eta ispiluak.

BIGARREN ESKUKO ALTZARIAK PREZIO ONEAN!!

Erabiltzen ez dituzun altzari edo tresneriarik badaukazu dei egin 78 32 88 telefonora eta geuk batuko ditugu

Gure ordutegia hurrengo da:

Astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 4etatik 8etara. Larunbatetan, goizeko 11etatik ordu 2etara

Kalezaharra 54 - OÑATI - Tfnoa: 78 32 88

EDEL
TAPIZDENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoia, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta, 14 BERGARA



Eskola kirola

Txalotu egin nahi ditut astero-astero eta zapatueta kiroi desberdinetan aritu diren neska-mutikoak. Zorionak eta eskerrak eman nahi dizkiet beraiekin aritu diren monitoreei, lan bikaina eta aipatzekoa egiten ari direlako; kirola bai, baina jarduera kiroltasunaren aldera lerratuz eta ez konpetizioaren aldera. Gaztetxoenginguruan guraso gutxi batzuk ere ibili gara eta neuk behintzat neuretzat gauza aberasgarriak atera ditut eskola-kiroletik:

- Semeak edo alabak besteekin dituen harremanak ikustek bera hobeto ezagutzeko parada ematen dizu.

- Gaztetxoek, zeuri ere taldean partaide izateko aukera ematen dizute eta bide batez, lehia sana, errespetuzkoa eta inor zapaldu gabe egina ere posible dela azaltzeko beta eta aukera duzu.

Neskek edo mutikoak, gustora ibiltzeaz gain, bizitzan beharrezkoak izango dituzten hainbat altxor jasotzen ari dira; hala nola, taldekoa sentitzea eta taldearentzat ahalegintzea, arauak ezagutzea eta hauen gaineko arbitrajea onartzea, irabazten eta galitzen ikastea harropuzkeriak eta zapuzketak gaindituz, arerioa errespetuz eta gizatasunez tratatzea, neska eta mutilak parez pareko elkarlanean eta lehian aritzea, ardurak banatzea eta hauek erantzutea, e.a. Hau guztia ere gure seme-alaben hezikuntzaren zati bat da, eta ez txikiena alajaina. Eskolan hezitzen dituzte, noski; etxean ere bai, nola ez, baina gizarte honek bere egunerokoan liskarrak, gorrotoak, ezinikusiak, harropuzkeriak, errespetu faltak, berekoikeriak, gizon eta emakumeen arteko desorekak, txikiaren gaineko handiaren zapalkuntza e.a. luze-luzea eskaintzen die etengabe eta izugarritzko indarrez gure seme-alabei eredu gisa. Eskola kirolean edo antzeko ekintzetan beraien inguruan ibiliz, geure esku dago, neurri batean behintzat, beste jarrera-eredu batzuk proposatzea jasotzen ari diren eraso horri aurre egiteko. Datorren ikasturtean ere, nik neuk eskola-kirolean guraso bezala izena emango dut.

Iñaki ARTOLA



Zita bat Diman

Horrelako aukera gutxi izaten ditugu, bai horixe! Lehen bezala jaien errepikapena egin eta 3 egun euskal giro jatorrean pasatzeko aukera izango dugu asteburu honetan Diman. Ostiralean hasi eta igandera bitartean Dimako aeroportu zaharrean egingo den AEKANpadan ikasle, irakasle eta euskaltzale ugari elkartuko da. Beraz, jai giroa nagusi Bizkaiko lurretan maiatzaren 31tik ekainaren 2ra. Egun hauek ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dira: ikastaroak (kantu ikastaroa, Larrain dantza, sexu ikastaroa, txalaparta, eskulanak, graffiti ikastaroa...), txapelketak, mahai inguruak, antzerki taldeak, zinema, eta egunero musika maratonia (Anje Duhalde, Tapia eta Leturia, Su Ta Gar, Bittor Aiape, Gari, Exkixu, Gozategi...).

Programa ez da makala berez, baina askoz hobe da euskara ikasten ari direnek Diman daukaten aukera. Euskara ikastea ahaleginetan ari diren guztiek euskaraz bizi ahal izango dute asteburu osoa, eta ziur askorentzat lehenengo aldia izango dela. Euskaraz hitzegin beharrak bat baino gehiago urdurituko du, baina ziur larunbat arratsaldea iritsi orduko ahaztuak dituela konplejo eta lotsa guztiak. Horrelako topaguneak aproposak baitira horretarako.

AEKANpadako aurtengo ekitaldian euskal kulturari aparteko garrantzia eman nahi izan zaio. Beraz, aurreko AEKANpadan aldatuta izango dugu. Azken urteetan parrandaleku bihurtu zen topagunea, kultur topagune izatera pasatu da (nahiz eta parrandak ere egingo diren, ez izan dudarik).

Beraz, jai giroa eta euskal jai atsegin dituenak astebururako plana egina dauka. Animatu zaitezte Dima aldera joaten, eta ondo pasa!

Ainhoa LETE

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

ZURICH



UNIBER

HISPANIA

Siaska

Dena zure
haurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA

AZPEITXI

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00


Jatetxea



■ **Euskal Kantu Txapelketan**

Larunbatean **Oiartzunen** izandako Euskal Kantuen Gipuzkoako Jaialdian herriko ordezkari izan genuen. Aipatutako jaialdian 21 taldek (100 pertsona inguru guztira) hartu zuten parte, tartean alboan agertzen diren bergararrak izan zirelarik. Alde batetik (goitik hasita, ezkerretik eskumara) Nekane Gabilondo, Blanca Cebrian, Amaia Aperribai,

Aitziber Azkondo, Yolanda Cebrian eta Idoia Suinagak osatzen duten **Laiotz** taldea (goiko argazkian), bestetik **Maite Loidi** eta **Itxaro Aranzabal** (eskuman) eta, azkenik, **Aitzol Mujika** bakarlarria. Ez zuten zorte haundiegirik izan, ez baitziren ekainaren 15eko Euskadiko Txapelketarako sailkatu. Hala ere, Madalensoro pelotalekuan bildutako jendetzak izan zuen bai euren kantuekin disfrutatzeke aukera...



iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
 Ibargarai, 2
 ☎ 76 51 65

ARGI PLASTIC
 PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
 Leihoak, atek, manparak...
Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik

 Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
 Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

ARREGI
Eraikuntza
materialeak
 Bitlegia Tellerian, Labegaraietan.
 Tfnoa: 76 27 93



■ **Aransgiren herri bazkaria**


Joan zen maiatzaren 19an Arans-Giren 25. urteurreneko ospakizun ekitaldiei amaiera eman zitzaien **Udal Biltegian** egindako bazkari herrikoiarekin. Guztira, **260 lagun** bildu ziren bertan eta oso giro atsegina izan zen. Bazkalostean, gorren eskolaren aldeko lan aipagarria egin duten **Jose Antonio Agirrebeña, Edurne Telleria, Begoña Aperribai eta Arantza Palacio** bergararrek eta **Pablo Garai** arrasatearrak omenalditxoak jaso zuten. Zorionak omendutako guztiei zein Arans-Giri zilarrezko eztaingatik.



■ **1963.ean jaiotako en bazkaria**

Maiatzaren 11n 1963. urtean jaiotako bergararrek anaiarteko eguna ospatu zuten. Guztira, **47 lagun** bildu ziren Azpeitxi jatetxean egindako bazkarian eta soinu-joleak ere bertan izan ziren giroa gehiago berotzen. Esan bezala primeran igaro zuten elkarrekin eskolako kontuak eta gaur egungoak komentatzen eta datorren urtean bazkaria errepikatzekotan geratu ziren. Goian, 1963ko bergararrak Kultur Etxean ateratako argazkian.

Zertan dihardute ba?



Eduardo Muruamendiaraz

31 urteko dantzari bergararrak Gipuzkoar Aurrekuko Euskadiko Txapelketa irabazi zuen igardean Pasaian. XVI. edizio honetan 24 dantzari aritu ziren lehiatzen eta Eduk hirugarren aldiz jarraian lortu zuen garaipena, Ramon Sanchez irundarra eta Jose Ignacio Vigueras donostiarraren aurretik. Mikel Cristti artistaren trofeo Eduren esku geratuko da azken hiru urteetan irabazle izateagatik. Horrez gain, hainbat opari jaso zituen Eduk. Esan behar da orain aste batzuk Murua bigarren geratu zela Gipuzkoako finalean.

DENA 100etik
ZURE OPARIENTZAKO
 Simon Arrieta, 3

ESKUEN BIDEZKO SENDAGILEA
 Reiki maisua - Naturista -
 Era guztietako gaisotasunen tratamendua: gaisotasun kronikoak, nerbioetakoak, emozionalak, degeneratiboak...
KONTSULTA: Aranerreka, 24 1. ☎ 76 56 66

ZUBIAURRE aroztegia
 Sarrerako eta barrurako ateak, horma armairuak, tarimak, egurrezko eta PVCzko leihoak, era guztietako arotz lanak...
Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

Alfredo Najera

Legazpiarra jaiotzez, Alfredo Najera (36 urte) Garbileko arduradunak 3 urte daramatza Bergaran. Garbilen 13 langile daude eta Alfredok dioenez sekula baino lan gehiago izaten dute jaietan. Orain, llintxako futbolari ohiak atsedean hartzarekin egiten du amets.

- Zenbat kilo zabor jaso dituzue?

- Ez dakit, baina egunero 4 kontenedore haundi hustu ditugu.

- Nolako gauzak aurkitzen dituzue?

- Edalontziak eta botilak batik bat. Kondoiak ere bai...

- Altxorrik topatu al duzue?

- Ez, diru piskat bakarrik.

- Lekurik zikinena, zein?

- Txoznak, dudarik gabe.

- Gauzarik nekezena garbitzeko?

- Entzierroko ibilbidea, denbora gutxi daukagulako.

- Zerk ematen dizu amorru gehien?

- Jaietan lan egin behar izateak.

- Zein egunetan izan da zikinkeria gehien?

- Igandean.

- Puntuatu herriaren garbitasuna.



"Jaietan, herriko lekurik zikinena txoznak izan dira; garbitzeko zailena, berriz, entzierroko ibilbidea, denbora gutxian garbitu behar delako, eta zikinkeria gehien igandean jaso dugu"

- Otik 10era, 8.
- **Zein da garbitzaileen patroia?**
- San Martin de Porres.
- **Juergarik egin duzu jaietan?**
- Ez, gauzez ez naiz irten.
- **Jaietako ekitaldirik gogokoena?**
- Entzierroak eta txekorketa.
- **Semea barraketara eraman behar izan duzu?**
- Oraindik txikiegia da baina badoa ikasiaz...
- **Barrakarik onena, zein?**
- Zezen mekanikoa.
- **Legazpiko ala Bergarako jaiak?**
- Hemengoak hobek dira.
- **Ipintzako futbol txapelketan arituko al zara?**
- Ez, dagoeneko ez daukat edaderik...
- **Futbitoan gustorago?**
- Bai, Labegarietan primeran pasatzen dut.
- **Futbol talde bat?**
- Reala.
- **Jokalari bat?**
- Bi aipatuko dizkizuet: Karpin eta Aranzabal. Kanpokoetatik? Mijatovic, bera da onena.
- **Entrenatzaile bat?**
- Toshack.
- **Amets bat?**
- Loteria tokatzea.
- **Eta tokatuz gero, zer?**
- Hasteko, Kanadara bidaia egingo nuke.
- **Astebukaera honetarako plan bat?**
- Getariara bazkaltzera joatea.

Biltoki.



xey

SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK.
HI-FI EKIPOAK.
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Bergaran.
☎ 76 39 64.

Pisua salgai Osintxun.
Erdi amueblatuta, argitsua.
☎ 76 17 27/55 98 (gauze).

Pisua salgai Koldo Eleizal-
den. ☎ 76 09 37.

Pisua salgai Bidekurutze-
tan. ☎ 76 43 22/56 07.

Pisua salgai Barrenkalean.
Berriztuta. ☎ 78 70 30.

Pisua salgai Bolun. 100
m2. ☎ 76 22 72.

Pisua salgai Antzuolan.
☎ 76 25 32.

Etxea salgai San Anto-
nion. ☎ 76 57 35.

Berriztutako **ganbara** San
Pedron salgai. ☎ 76 24 05.

Garajea salgai San Lorent-
zon. ☎ 76 58 28.

Pisua alokairuan hartuko
nuke. ☎ 76 25 31 (Alex).

Pisua alokairuan Bideku-
rutzetan. ☎ 76 36 99.

Pisua salgai Frontoian.
☎ 76 51 73.

Garajea salgai Zurrade-
ron. ☎ 76 02 89.

Garajea salgai Santa
Marinan. ☎ 76 29 36.

DENETARIK

Kotxe silla bat salgai.
☎ 76 58 84.

Denda-remolkea salgai.
☎ 76 37 82.

Nikon 70210 "D" objetiboa
salgai. ☎ 76 52 31 (Jesus).

2. eskuko **Mobylette** bat
erosiko nuke. ☎ 76 15 81.

Golf-eko Wilson makilak
salgai. ☎ 76 10 93/32 15 89.

Imar karro denda salgai.
☎ 76 59 56 (gauze).

Boxer txakurrak saltzen
ditut. Otsailaren 5ean jai-
otakoak. ☎ 76 06 84.

Trialsineko Monty bizi-
kleta salgai. Egoera onean.
☎ 76 56 13.

Opel Kadet GSI kotxea
(SS-AF) salgai. 16 balbula.
☎ 76 24 81.

Segamegadrive konsola
salgai. ☎ 76 23 17 (Mikel).

Nissan Vanette (SS-AK)
salgai. ☎ 21 18 55.

Mendiko bizikleta sal-
gai. ☎ 76 51 55.

Lancia Delta GTI kotxea
salgai. ☎ 76 59 40 (Jorge).

Karrerako bizikleta sal-
gai. Vitus koadroa.
☎ 76 06 75 (Iñigo).

Karakol eskilara salgai.
☎ 76 14 84.

Mastin txakurkumea sal-
gai. ☎ 76 54 26.

Casio poltsikoko telebista
salgai. ☎ 76 56 13 (Markel).

Estaka batzuk salgai.
Gaztainazkoak.
☎ 73 35 35 (Julian).

LANA

OHO eta ingeles klaseak.
☎ 76 17 18 (Jesus).

Ingeles klaseak.
☎ 76 40 89 (Gemma).

Euskara klaseak hartuko
nituzke. ☎ 76 58 73.

Ingeles klaseak ematen
ditut. ☎ 76 06 56 (Irene).

Klase partikularrak ema-
ten ditut. ☎ 76 04 65.

Klase partikularrak
ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Haurrak zainduko nituz-
ke. ☎ 76 18 75.

Etxeko lanak egingo ni-
tuzke. ☎ 76 38 00.

Zaharrak edo haurrak
zainduko nituzke. Esperien-
tzia. ☎ 76 53 18.

Pintura klaseak emango
ditut uztailean.
☎ 76 44 17 (Usoa).

Neska batek haurrak edo
zaharrak zaindu eta etxe-
ko lanak egingo lituzke.
☎ 76 21 96 (Mertxe).

BBB, UBI eta unibertsitate
mailako klase partikula-
rrak. ☎ 76 35 37.

Haurrak zaindu edo etxe-
ko lanak egingo nituzke.
Esperientzia. ☎ 76 61 17.

Ordenadorez pasatzen
dira lanak. ☎ 76 27 59.

Zaharrak zainduko ni-
tuzke. ☎ 76 11 11.

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

AGOITZ**Tapizdenda**

San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

Masterreka 24

**Nepal, India eta Hego
Amerikako jantziak**

Masterreka, 24 BERGARA

SIRIMIRI**jatetxea**

**PINTXO BEROAK,
EGUNEKO MENUA, KARTA.**


Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

POL-POL**Taberna**

☎ 76 07 78



BONOFOTOA



M. A. ELKORBEREZIBAR



Aritz Balda

Aritz Balda jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, joan zen astean egindako galdera asmatu eta ondorengo zozketan bere txartela irten delako. Argazkian agertzen zen baserriaren izena galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Moiua azpikoa** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Aritz Baldari** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein etxeren alboaldean aurki dezakegu armarrri dotore hau eta zein kaletatik ikus dezakegu berau?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

16 talde lehian adin mugarik gabeko futbol txapelketan

Bi multzotan banatuta, 16 talde arituko dira lehian asteazkenean hasi zen Ipintzako Adin Mugarik Gabeko Futbol Txapelketan. A multzoa, Amilotx, Guadalest, Angiozar, Shaktale, La Juve, A Ze Flaxa, Patxaran Team eta Mongatxurak taldeek ostuko dute; B multzoa, berriz, Matxakategi, Altos Pornos, Xurrupak, Ezinleike, Facuta, Bildurbarek Opel/Lam, paok eta Arloteak-Oilagorak. Multzo bakoitzeko taldeek elkarren kontra jokatuko dute eta lau onenak sailkatuko dira bigarren faserako. Final laurdenak uztailaren 16an jokatuko dira eta finala 19an. Iaz Bildurbarek Opel/Lam taldeak irabazi zuen txapelketa, finalean Mongatxurak taldearen kontra 3 eta 2 nagusitu ondoren. Datorren astean bi partidu jokatuko dira egunero astelehenetik ostiralera.



Bildurbarek Opel/Lam, iazko txapelketa.

Nesken beste futbito txapelketa bat hasiko da astebukaeran

Jardunek eta Lagunak Aretu Futbol Elkarteak antolatutako nesken futbito txapelketa asteburu honetan hasiko da. Guztira 6 taldek eman dute izena eta horien artean Eibarreko talde bat ere badago. Txapelketan denek denek kontra jokatuko dute bi bueltara eta lau lehenengoak final erdietarako sailkatuko dira. Hasieran

astebukaeretan jokatuko dira partiduak baina oportetan, taldeko jokalariek ahal baldin badute, astean zehar ere jokatuko dira. Partiduak Miguel Altuna institutuan jokatuko dira. Zapatu honetarako iragarri diren partiduak hauek dira: 12:00: Blue Stars-Potzu Ta Zapaburuak. 16:00: Bakage-Bost; 18:00: Power Rangers-Guk geuk.



Aurreko futbito txapelketa orain dela gutxi bukatu bazen ere, beste nesken txapelketa bat jokatuko da udan zehar.

Labegaraietako txapelketa

Kopa txapelketa hasiko da astebukaera honetan. Bestalde, igo eta jeisteko promozio hiru partidu jokatuko dira: Ufala eta Artusamak taldeen artekoa, Igandekoak eta PJSren artekoa eta Autoberezi eta Nekrofilikos taldeek jokatuko dutena.

LARUNBATEAN BARRUAN

09:00: Patxaran Team-FAC • **Ari Ari**
10:00: Xurrupak-Ari Ari • **FAC**
11:00: Ogizun-Autoberezi • **Bildurbarek**
12:00: PJS-Bildurbarek Opel/Lam • **Autoberezi**
13:00: Ufala-Artusamak • **Antolaketa**

IGANDEAN BARRUAN

09:00: Txipiron-Artusamak • **Madura**
10:00: Madura-EH Biterrak • **Antolaketa**
11:00: Eri-Labegaraieta • **EH Biterrak**
12:00: Autoberezi-Nekrofilikos • **Antolaketa**
13:00: Igandekoak-PJS • **Antolaketa**
16:00: Arloteak-Kabia • **C. Bergara**
17:00: Errotagain-C. Bergara • **Kabia**
18:00: Bar Canalejas-Shaktale • **Errotagain**
19:00: Ortzi-Matxakategi • **Shaktale**
20:00: Etxagi-Uve Bikoitza • **Ortzi**

IGANDEAN KANPOAN

12:00: Mongatxurra-Kayak OJ • **Kirolzaleak**
13:00: Ozaeta-Kirolzaleak • **Mongatxurra**

TXINPARTAK

Aerobitona larunbatean Kiroldegian

Bolu eta Giartzu gimnasioek aerobiton txapelketa antolatu dute larunbaterako.

Arratsaldeko 5etan emango zaio hasiera eta bi orduz arituko dira aerobic-ean jo eta ke. Parte hartu nahi duenak Kutxan eman dezake izena 500 pezetaren truke.

Mendi irteera

Alpino Gorlak eta Pol-Pol Mendizale Taldeak nagusientzako mendi irteera antolatu dute Gabarni-Bujaruelora ekainaren 15 eta 16rako. Izen-ematea eta informazio gehiago Pol-Poleko bulegoetan.

Tirapu-Almandoz txapeldun

Pazku domekan jokaturako afizionatuentzako Pentekoste pelota txapelketako finalean, Tirapu eta Almandozek 22 eta 12 irabazi zieten Berraondo eta Iparragirreri. Azken honek Rai ordezkatu zuen, lesionatuta baitzegoen.

Uda kanpaina

Udal Kirol zerbitzuak udan kirola egiteko eskaintza zabala prestatu du. Igeriketa, tenisa edo abentura kirolak egiteko aukera izango da, beste askoren artean.

Bergarako Xake Taldeak 25 urte bete ditu egun hauetan

Bergarako Xake Taldeak elkartearen 25. urtemuga ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunetarako.

Bihar, larunbata, goizeko 10etatik aurrera San Martin plazan, Espoioian eta Frontoian hainbat xakelari elkartuko dira aldi bereko xake partiden nazioarteko errekorra gainditzeko asmoz. Antolatzaileek adierazi digutenez ezin daiteke jakin zenbat jokalaririk etorriko diren, baina adin eta toki askotako jokalaririk izango direla ziurtatu dute.

Igandean, berriz, taldekako Bergara Hiria saria jokatu da Udal Pelotalekuan goizeko 9:30etatik aurrera. Bertan, Estatu osotik etorritako taldeak izango dira lehian eta arratsaldeko 4etan toki berean xake partida azkarren banakako txapelketa jokatu da. Larunbateko egitaraua klubaren arteko xake azkarreko txapelketarekin eta autonomien arteko xake txapelketarekin

osatzen da. Azken bi hauek arratsaldeko 4etatik aurrera jokatu dira Udal Pelotalekuan.

Artelanak, filatelia, argazkiak...

Txapelketez gain xakearekin lotura duten beste hainbat iharduera izango dira; horrela, bada, pintura, filatelia, argazki, xake material osagarrien eta konputagailuen erakusketa izango da datorren ekainaren 10era arte. Azkenik, bi formazio

ikastaro ere antolatu dituzte: bata monitoreentzat izango da eta bestea, epaileentzat.

Antolaketa lanak Bergarako Xake Taldeak, Bergarako Udalak eta Euskal Xake Federazioak egin dituzte. *"Eskerrak eman nabi dizkiegu Bergarako dendariei, euren laguntza barik ez baitzen posible izango hau guztia antolatzea eta aurrera ateratzea"*, esan digu Edurne Zabaletak, Bergarako Xake Taldeko kideak.




Xakea herritarrengana hurbiltzea da Xake Taldearen helburua.



Palako finalak

Azkarate eta Zabalok irabazi zuten Binakako VI. Pala Txapelketa, joan zen maiatzaren 19an Agirrebeña eta Uberari 35 eta 32 irabazi eta gero. Hirugarren postuan Alberdi eta Gallastegi geratu ziren. Argazkian ikus ditzakezue irabazleak Xabier Zabaleta zinegotziaren ondoan.



Jon Unamuno txirrindularia erlojuaren kontrako Gipuzkoako txapeldu

Jon Unamuno gazte mailako txirrindulari bergararrak Alegin jokaturako Erlojuaren Kontrako Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen. Bigarrenari 58" atera zizkion eta zirkuitoak zituen 23,8 kilometroak egiteko 29' 8"ko denbora behar izan zuen. Unamunoren batatz besteko abiadura 48,737 km/ord izan zen eta adituen ustez bergararrak lortutako batatz bestekoa oso ona izan zen. Unamunoren azkenengo lasterketa Fondoko Euskadiko txapelketa izan da eta ez zuen zorte handiegirik izan erori egin baitzen eta bizikletaren kuadroa apurto zuen. Orain, ekainaren 8an Euskadiko Erlojuaren Kontrako txapelketara joango da eta esan digunez, "ez dakit zeintzuk izango diren arerio nagusienak, baina ni behintzat gogo haundiz joango naiz". Beraz hainbat lasterketetan 2. izan ondoren azkenean lortu du garaipena txirrindulari gazteak.

Nerea Mendizabal

Astean 14 ordu gimnasia

Nerea Mendizabalek 15 urte ditu eta 4 urte zituenetik ari da gimnasia erritmikoa egiten. Ariznoa gimnasia erritmiko taldean dabil eta astero 14 ordu inguru sartzen ditu.

- Soka, zinta, pelota eta mazak. Guztiekin aritzen zara?

- Bai, egunean bat lantzen dugu. Gehien soka gustatzen zait errezena egiten baitzait. Zailena, berriz, pelota da, askotan ihes egiten baitu.

- Aurten ezin izan zara Espainiako txapelketarako sailkatu..

- Lehenengo Gipuzkoako txapelketa izan genuen eta Euskadikorako sailkatzea lortu genuen. Baina, Euskadikoan ezin izan genuen Espainiakorako sailkapena lortu.

- Zergatik?

- Agian dezisio faltagatik. Gainera ni oso urduri jartzen naiz txapelketetan, entrenamenduetan ondo ibili arren.

- Hori ikusirik lehieketa ondoren zer pentsatzen duzu?

- Normalean urduri egon ez banintz, agian pasatuko nintzela pentsatzen duzu, baina hori laister pasatzen da.

- Ze moduz Udal Pelotalekuan jokaturako probetan?

- Nahiko ondo, sokarekin irabazi egin nuen eta pelotakin Amaia Ortiz de Urbina taldekideak 2. postua lortu zuen.

- Datorren urterako ze asmo dituzu?

- Nik seguraski ez dut

jarraituko, baina bestela plan berdina izango litzateke, Gipuzkoakoetara joan eta Euskadikoetarako sailkatu. Gehienbat ikasketengatik ez dut jarraituko, denbora asko kentzen baitute, eta ez dut bi gauzak ondo egiteko astirik.

- Beste kirolik egiten al duzu?

- Ez, beti gimnasia ibili naiz eta ez dut pentsatu beste kirolik egiterik. Aerobica? gustatzen zait, baina ez dut behin ere egin.

- Ez al dizu penarik ematen gimnasia lagatzeak?

- Bai, joan zen urtean lagatzekotan ibili nintzen,


baina aurten ziur lagako dudala.

- Duela bi urte taldeka Espainiako txapelketan izan zineten.

- Bai, Gijonen izan ginen eta oso ondo pasatu genuen. Hara ardura handiegirik gabe joan ginen eta beste talde batzuk egiten zutena ikusteko aukera izan genuen.

- Urte hauetan bete ez duzun asmoren bat?

- Uste dut ezin dudala gehiago eskatu, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan izan naiz eta taldeka Espainiakoa izan naiz eta ez zait ezer falta.



Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapelketetan izan da.

"Aerobica gustatzen zait, baina ez dut sekula egin"



Xake taldeak 25 urte

Bergarako Xake taldeak bere XXV. urteurrena betetzen du aurten eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dira bihar larunbaterako, tartean Guinness errekorren liburuan sartzeko ahalegina. Azken hau lortzeko 4.000 partida jokatzea lortu nahi da eta hortarako xakezale ugari hurbilduko zaizkigu.


Bien bitartean ondo etortzen da garai zaharrak gogoratzea. Horretarako bi argazki ekarri ditugu. Batetik orain dela 25 urte taldea osatzen zutenak garaipen bat ospatzen ikus ditzakezue. Ezkerretik eskumara hauek dituzue:

Zutik: Andres Timofeva, Rafael Ogeta, Miguel Angel Muela, Juanjo Escribano Lasa eta Angel Romo.

Eserita: Baldomero Lopez de Retana, Arantxa Oteo eta Maria Jesus Larrañaga. Pazkuetako erreginak, Eulogio Diez eta Roman Gallastegi.

Ezkerreko argazkian, garai haietan eskolarteko txapelketetan primeran aritzen ziren hiru gazte agertzen dira, hirurak trofeo banarekin. Ezkerretik eskumara Angel Mari Iriondo, Jose Ignacio Gabilondo eta Goio Juldain.

Biharko saiakeran guztion partaidetza beharrezkoa izango da...



ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga
JATETXEA

IGANDETAN
ZABALIK!!

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

Zure
zerbitzura!!

Mota guztietako instalazioak



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA



ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN
espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabiloia,
San Andres auzoa)
Tfnoa eta Faxe: 79 41 82
ARRASATE

Larunbat
arratsaldeetan
zabalik!!



Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!